

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa baten funtsezko hiru jarduerak ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo Sareko jarduerak dira.

Gure enpresaren kasuan, ez gara manufakturaizaileak, produkturik ekoizten ez dugulako. Gure xedea erosleak aholkatzea eta zuzentzea da hasiera batean, baina denborarekin kable eta diseinu propioak egiteko aukera ez dugu baztertzen. Kasu horretan, erosleek diseinua eman beharko ligukete edo guk alde zuzenetik egindako bat aukeratu, gero kableetan txertatu eta erosleei emandako helbidera bidaliko diegu haien erosketa.

Produkturik ekoizten ez dugun bitartean, ez dugu arazorik izango, baina erabiltzaileei ziurtatzen diegu guk aukeraturik dendak fidagarriak direla eta arazorik ez dutela izango. Pertsonalizazio aukerak aurrera eramango bagenu, produktua matxuratu egoteko kasuan, bezeroari dirua edo produktu berri bat emango genioke.

Bukatzeko, Sareko jarduerak dira garrantzitsuenak, gure negozioak web orrialde garbia, ulerterraza eta erabilgarria eskatzen baitigu. Lehendabizi, merkatuko kable ezberdinak ezagutu beharko ditugu eta irizpide ezberdinak jarraituz, bakoitza dagokion lekuan sailkatu. Horrez gain, salgai dauden lekuak aurkitu beharko genituzke, gure web orria kontsultatzen dutenak bertara zuzentzeko zuzenean.